

INDARKERIA MATXISTA



1. Zer da indarkeria matxista?


Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa da, eta batez ere emakumeei eragiten dien genero-desberdintasunen adierazpen larriena da. Aurrerapenak aurrerapen, **gure jendarteak aurre egin behar dien arazo handietako bat izaten jarraitzen du**, eta berori jasaten duten emakumeen gainean dituen ondorioek izugarri galarazten dute emakumeak eskubideetara eta aukeretara baldintza beretan iristea.[1]

[1] HARA! Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako 2018-2021erako IV. Plana (2018:57) dokumentua moldatu egin da.

Batez ere emakumeen aurka ezartzen den kontrol- eta menderakuntza-ariketa da indarkeria matxista, eta bizitzaren eremu guztietan ezartzen zaie emakumeei, **emakume izate hutsagatik**. Halaber, **sexu-genero-sexualitate sistema nagusiaren aginduak hausten dituzten pertsonak ere** (hala nola, LGTBIOA+ pertsonak) aurrez aurre daukate indarkeria matxista.

Indarkeria aipatzeko dugun modua ez da kasualitatea. Hitzen erabilerak hitzek aipatzen duten errealitatearen gaineko ikuspegi zehatz bat erakusten du, eta sensibilizatzeko, eraldaketa sozialerako eta jarrera hartzeko tresna ere izan behar du.

Hasi baino lehen errealitate konplexu honi erreferentzia egiteko erabiliko diren **hitz ezberdinen definizioak** adieraziko dira, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarri den azterketari buruzko agiria (2014) oinarri gisa hartuta:



• INDARKERIA MATXISTA:

Gorputzak, jaio baino lehenagotik, etiketatua dira arra/gizona edo emea/emakumea egiten dituen arau genital batean oinarrituta, zeinak zerizan horietako bakoitzari jokaera maskulinoa edo femeninoa esleitzen dion. Jokaera horiek gizarte-eginkizun arbitrario, dikotomiko eta hierarkikoak besterik ez dira. **Hierarkikoak** dira, maskulino izendatzen dena femenino izendatzen dena baino hobeagotzat hartzen delako. Hau honela, **emakumeak indarkeria matxista paira dezakete.**

Era berean, sexu/generoei berdin-berdin ezartzen zaie **jokaera heterosexualaren** araudia. Paradigma sozialak, mantendu eta birsortu ahal izateko, bermatu

egiten du gorputzek sexu-genero-sexualitate (ar-gizon-maskulino-heterosexuala; eme-emakume-femenino-heterosexuala) eskema lineal hori jarraituko dutela, mekanismo ugari erabilita hala nola;homofobia,transfobia, lesbofobia...

Eskema horri aurre egiten dioten gorputz guztiek - Intersex gorputzak, gorputz transgeneroak, homosexualak, lesbianak, tradizioz esleitutako genero-eskemak apurtzen dituzten emakumeak eta gizonak... (beren egitura biologikotik sexu-jokaeraraino) indarkeria matxista paira dezakete baita ere.

• INDARKERIA SEXISTA:

Emakume guztiek, hots, sexu/genero eskema tradizionalan **emakumearen sinbolo diren gorputz guztiek, indarkeria sexista pairatzen dute**, eta ez egiten dutenagatik, direnagatik eta irudikatzen dutenagatik.



• GENERO INDARKERIA

Nazioarteko erakunde eta dokumentuetan, indarkeria sexistari genero indarkeria bezala izendatu zaio, eta hori nahasgarria izan daiteke, izan ere, **Espainiako legerian, kontzeptu** hori indarkeriaren adierazpen jakin bat aditzera emateko erabiltzen da. Genero-indarkeria terminoa erabiliko da indarkeria sexista, edozein moldetan, **bikote kideak edo bikote kide ohiak egiten duenean.**



INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK

Interneten aritzen den emakumeen %98,9k indarkeria matxista pairatu du, Donestech taldearen arabera. Gehien jasotzen diren indarkeria motak dira:

IRAINAK: emakumea izateagatik, hala nola, "puta/bollera", ...

MEHATXUAK: "bortxatu/jo/hilko zaitugu", ... "badakigu non bizi zaren", ...

XANTAIK: informazio faltsua erabiliz

DIFAMAZIOA: emakumeari buruzko gezurrak zabalduz.



Teknologia libre eta feminista izateko baliabideak dira, besteak beste: cyborgfeministak eta "Indarkeria matxistaren aurkako Kit"-a

Emakundek argitaratutako datuen arabera, 2017. urtean zehar:

14-17

urte bitarteko biktimen artean %34ak bikote edo bikotekide ohiak eragindakoa da.

Gehienek

beren bikote edo bikote-ohien eskutik pairatu zuten indarkeria %72,3.

Indarkeriaren biktima izandako 4.020 emakume erregistratu ziren.

18-20 urte artean %65.

1.2. Indarkeria matxistaren mitoak

Datuak "Tenerife Violeta" genero berdintasunerako Sarearen genero-indarkeriak prebenitzeko sentsibilizazio-kanpainatik aterata/egokituta daude. Bere ataria bisitatzeraz animatzen zaituztegu, informazio eta material ugari baitu. Bereziki interesgarria iruditzen zaigu "Enredate sin machismo" atala. Ziur aski, inoiz entzun duzu bildu ditugun ideietako bat, oso hedatuak dira, baina okerrak.

Gizon erasotzaileek gaixotasun mentalen bat izaten dute

Erasotzaileen % 1 baino gutxiagotan dago gaixotasun mentala. Frogatuta dago tratu txarrak jasan ondoren, emakumeen ehuneko handi batek arazo psikologikoak izan ditzakeela.

Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria munduko arazo bat da, epidemia-proportzioak dituena. Giza eskubideen urraketa orokorra da

Indarkeria matxista isolatutako zerbait da

Kontu pribatua da, trapu zikinak etxean garbitzen dira.

Delitua da, eta jendarte osoa da jokabide bortitzak sortzen eta legitimatzen dituen matxismoaren erantzule. Jatorria ez da familia-arazo bat, gizonak emakumea menderatzen duen kontu bat baizik.

Bortxaketa gehienak ingurune hurbileko gizonak egiten dituzte, emakumeek ezagutzen dituzten gizonak eta haiengan konfiantza dutenek.

Erasotzaileak pertsona ezezagunak dira

Indarkeria matxistak diru-sarrera txikiko, kultura-maila txikiko eta etnia batzuetako familietan baino ez dira gertatzen.

Egoera guztietako emakumeei eragiten die, edozein dela ere haien estatus ekonomikoa, soziala, hezkuntza-maila edo etnia.

Salaketa faltsuen kopurua % 0,01ekoa da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2014ko Memoriaren arabera. Salaketa faltsu gehiago daude Zigor Kodean tipifikatutako beste edozein delitutan, genero-indarkeriaren delituan baino.

Emakumeek salaketa faltsuak jartzen dituzte etekin ekonomikoak lortzeko eta etxearekin geratzeko.

Alkoholaren edo beste droga batzuen kontsumoa da jokabide bortitzen arrazoiak.

Faktore horiek eragile edo aitzakia gisa jardun dezakete, baina inoiz ez dira kausa. Gizon askok edaten eta drogak hartzen dituzte, eta ez dute tratu txarririk ematen, bestalde, gizon batzuek tratu txarrak ematen dituzte eta ez dute drogarik edo alkoholik kontsumitzen.


Bikotekideari tratu txarrak ematen dizkioten gizon gehienak ez dira bortitzak beste pertsona batzuekin. Testosteronak ez du tratu txarririk sortzen, ideia matxistak bai.

Gizonak berez dira bortitzak eta, batzuetan, edonork gal dezake kontrola.



1.3. Indarkeriaren izozmendia

Indarkeria matxistaren fenomenoa **ez da zerbait isolatua, estrukturala baizik**, sozializazio prozesu multzoen ondorioa. Alegia, gure jendartea sostengatzen duten estrukturek indarkeria matxistaren existentzia ahalbidetzen dute.



Ezinbestekoa da ikusezin diren egoera hauei guztiei behar besteko garrantzia ematea, identifikatzen ikastea eta aurre egitea; nolabait, goian kokatzen den indarkeria matxista sostengatu eta legitimatzen baitute.

Irudia: Iceberg honen jatorrizko ideia [Amnistia Internazionalarena](#) da

Errealitate hau adierazteko **Indarkeria matxistaren izozmendia** baliabide egokia izan daiteke. Goiko partean -tontorrean- hilketak, eta bortxaketak egongo dira, alegia, begi bistakoa den indarkeria, komunikabideetan oihartzun handiena duena, eta jendarteak, oro har, zigortzen duena. Aldiz, badaude beste indarkeri mota asko ikusezinagoak direnak -ur azpian daudenak-; hau da, mehatxuak, xantai emozionala, umore matxista, mikromatxismoak ...

4.2.1. Indarkeria matxista 3.0

Garrantzitsua iruditzen zaigu atal txikia eskaintzea **IKTei**, izan ere, gure errealitatean gero eta inpaktu handiagoa sortzen ari dira. IKTen erabilerak alderdi positibo asko eta nabarmenak baditu ere indarkeria matxistaren baitan aztertzeko eta kontuan hartzeko errealitate berriak sortu dituzte. Errealitate hauek ezagutzeko **Estibaliz Linaren Bahillok** egindako "El iceberg digital machista: análisis, prevención e interpretación de las realidades machistas que se reproducen entre la adolescencia de la CAE" ikerketaren ondorioetan oinarrituko gara gehien bat.

- **Informatikarekin harremana duten ikasketetara** jotzen duen gehiengo handi bat **gizonak** dira (%80 inguru). Kontuan hartu beharreko faktorea, izan ere, informatika eta teknologia berriak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira jendartearen.

- Youtuberrak gazteentzako erreferente berriak dira eta guretzako edukiak prestatzen dituzte. Youtuber **emakumeak gehien bat, moda, edertasuna, familia edo amatasunarekin** harremana duten edukiak sortzen dituzte. **Gizonak gehien bat bideo jokoekin** harremana dutenak. Eduki hauek kontsumitzerakoan genero rol eta estereotipoen araberako bereizketa agerikoa da gazteen artean.
- Youtuber batzuk jasaten duten **ziber- jazarpen matxistaren lekukoak dira gazteak** (feministak, lesbianak edo gay-ak izateagatik besteak beste). Pertsona hauek **haterrak** bezala identifikatzen dituzte.
- Gehien saltzen diren **bideojokoak eduki matxista eta bortitzkeria maila altuak** daukate. Bideo jokoaren erabiltzaileen artean gehiengo handia mutilak dira.
- Gorputzen **hipersexualizazioa** sare sozialetan. Gehien bat neskek jasaten duten fisikoarekiko presioa konstantea.



- **Ziber-jazarpen sexista eta LGBTifobikoa.** Biktimen babesgabetasuna, errudun sentiarazteko joera eta egoera hauekiko enpatia falta.

Errealitate honetan esku-hartzeko garrantzitsua da hezkidetzaren oinarriak kontuan hartzea.


- Errealitate honen inguruko informazioa eta ikuspegi kritikoa lantzea, berdintasuneko jokabideak eta diskurtsoak lantzeko.

- Autodefentsa ziberfeminista; estrategiak irakatsi eta gune digitaletan gertatzen diren eraso matxistak salatzeko baliabideak sortu eta zabaltzea.

- Ziberfeminismoa ezagutzera ematea.

Ziberfeminismoa

"Berdintasuna, aniztasuna eta ekitatearen aldeko sareko aktibismoa. Ekintza feministak sarearen barruan (Aldarrikapenak, Kanpainak, ekintzak, Blogak, YouTuber-ak...)



- Ziberfeminismoaren eredurik ezagutzen duzu? zein? zein mezu zabaltzen ditu? beharrezkoak jotzen dituzu horrelako ekintzak?

Eredu gisa Stop Gordofobia Facebook orrialdea ikustera gonbidatzen zaituztegu.




2. GENERO INDARKERIA

Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu-erasoak jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobe emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenak informazioa hiru eremutan banatzen du: bikotekideak (edo bikotekide ohiak) eragindako emakumeen aurkako indarkeria, etxeko eta familiako eremuan gertatzen dena (eremu horretan bikotekideak eragindako indarkeria ez da sartzen) eta sexu-indarkeria.

Hala ere, **kasu honetan bikote harremanetan ematen den indarkeriari egingo zaio erreferentzia**, alegia, testuinguru legalean genero indarkeria bezala ezagutua dena.

Askotan pentsatzen dugu genero indarkeria emakume helduen arazoa dela eta batez ere biztanleriaren sektore jakin batean eragina duela. Hala ere, jakin badakigu, genero indarkeria jasate duten **emakumeen artean ez dagoela perfil zehatzik**.



Nola identifika dezaket genero-indarkeriarik dagoen bikote batean?



2.1. Genero indarkeriaren berezitasunak


- Ideologia batetik abiatzen den indarkeria da: egitura patriarkaletik abiatzen da, eta sexuen arteko **desberdintasuna bultzatzen eta mantentzen** duten tradizioetan, sinesmenetan eta ohituretan oinarritzen da.
- Indarkeria **instrumentala** da, harremanetan eredu sexista eta desberdina inposatzeko tresna gisa erabiltzen da, **emakumea menderatzeko eta bere sexuari dagozkion pribilegioei eusteko**.
- **Biktimak abusua** eta indarkeria jasaten ditu, eta errespetua, **maitasuna eta babesa jasotzea espero du**.
- **Ez da kolektibo batera mugatzen**. Edozein emakumek pairatu dezake. Bikotearen barruko eremu pribatuan garatu ohi da, eta horrek frogak lortzeko zailtasunak eta zigorgabetasuna sustatzen ditu.
- Gehienetan **erasotzaileak irudi publiko "normala" du** (bizilagun ona, langile ona, hezia...).
- Unean uneko eraso fisikoa bakarrik ikusten dugu, eta **prozesuaren gainerako zatia ikusezin** bihurtzen dugu askotan (jendarte).
- **Kalte handiak** eragiten dizkio biktimari: fisikoa, psikologikoa, soziala eta ondarezkoa.
- Biktimari **nortasuna deuseztatzen** dio, eta horrek mendekotasun emozional handia sortzen dio erasotzailearekiko.
- **Ikasia da** eta jendarte arbuioaren faltagatik mantentzen da.

Iturria: Red ciudadana para la detección y apoyo a las víctimas de V.G :




2.2. Indarkeriaren adierazleak


Behaldean piramide bat duzue, honen helburua genero indarkeriaren prozesua modu erraz batean ulertzea da. Piramidearen bitartez erasoen intentsitate eta maiztasuna areagotuz joaten dela adierazi nahi da. Goiko partean hilketak daude, hurrengo bitan indarkeria fisikoa eta sexuala, azkenengo lautan indarkeria psikologikoa, soziala eta ekonomikoa. **Gurutzeak indarkeriaren adierazleak dira**, genero indarkeriaren prebentziorako kontuan izan behar ditugunak.




Adierazle hauek zeintzuk diren ezagutzeko ikus ezazue Carmen Ruiz Repulloen bideo hau.



Puntu honetan **maitasun erromantikora bueltatzen gara**, izan ere, bideoan ikusi ditugun adierazleak: mezu eta deien kontrola, janzkeraren kontrola, lagun eta familiarik aldentzea, lorpenak gutxiestea, errudun sentiaraztea eta beste hainbat **maitasunaren seinale bezala hautematen dira askotan**.



Igelaren esperimentua 11. minututik aurrera



Horrelako egoera bizi izan duen emakume baten egoera psikologikoa gerra bizi izan duen emakume baten egoerarekin alderatu daiteke.



Hala ere, hau **ez da egun batetik besterako kontua**, izan ere, erasotzailea indarkeria fisikoa erabiliko balu hasieratik errazagoa izango litzateke konturatu eta alde egitea.

Aipatutako piramide (edo eskailera) horretan zenbat eta gehiago igo eta denbora gehiago mantendu: Isolamendua, auto estima falta edo beldurra handiagoa izango da. Prozesu hau ulertzeko ondorengo bideoa ikustea gomendatzen dizuegu.



2.2.1. Indarkeriaren zikloa

Genero indarkeria hobeto ulertzeko helburuarekin, **Leonor Walkerren** indarkeria ziklora pasako gara. Urte askotako esperientziaren ostean, **genero indarkeria** kasuetan errepikatzen den zikloa identifikatu zuen Leonor Walkerrek. Artatzen zituen emakumeen testigantzen bidez, ikusi zuen **biktimak ez zirela denbora guztian modu berean erasotzen**, baizik eta faseka. Bakoitzak iraupen desberdina du eta modu desberdinetan agertzen da: akumulazio fasea (urteetan zehar garatu daitekeena), eztanda fasea (normalean laguntza eskatzen duten unea) eta eztei-bidaia (*erasotzaileak erasotuari barkamena eskatzen dion unea*).



Ikus ezazu bideoa
Indarkeriaren faseak
zeintzuk diren
ulertzeko



2.3. Eta hau gertatzen bada zer egin dezaket?

Indarkeria dagoen harreman batetik irtetea zaila izan daiteke, ez baduzu gertatzen zaizuna identifikatzen. **Baina gogoratu irtenbideak badaudela**, zoriotsu izatea merezi duzu! eta beti egongo da norbait zu laguntzeko prest. Iturria: Colección rebeldes de género: despatriarcando parejas, Gobierno de Canarias.

- Indarkeria jasaten ari den pertsona ezagutzen baduzu

Lagun sareak funtzezkoak dira indarkeria dagoen harreman batetik irten edo hauen prebentziorako, gogorra izan daiteke, baina garrantzitsua zara berarentzako.

- Berarekin egon. **Senti dezala beti egongo zarela bere ondoan**, bakardade sentazioa baita etsairik handiena. Ez utzi deitzeari eta noizbehinka gonbidatu egiten dituzuen ekintzatarara. Ezin badu irten edo erasotzailearekin bueltatzen bada ere jarraitu bere ondoan.
- Entzun epaitu gabe, eta sahiestu "egin behar duzuna da..." bezalakoak. Berak **bere egoera ikusteko gai denean soilik irtengo da egoeratik**.
- Lagundu bere prozesuan, laguntza zerbitzuetara deitzera edo joatera animatzen bada berarekin batera egin dezakezu. **Profesionalekin edo konfiantzazko pertsona nagusiren batekin kontaktuan jarri**, zu ere aholkuak jaso ditzakezu.
- Egoera hauetan **taldeak eragin handia du**: "Txantxez" mozorrotutako irain eta erasoan aurrean erreakzionatu. Bikotekidea kontrolatzen edo menderatzen duela aipatzen duen pertsonen ebidentzian jarri.



- Indarkeria jasaten ari bazara

- Ez da justua eta **ez du ezerk jasaten ari zarena justifikatzen**. Ez duzu merezi edozein motatako indarkeria jasatea.
- **Ez da inoiz zure errua izango**, ez zara indarkeria horren erantzule inoiz.
- **Tratu onetan oinarritutako harremanak izatea merezi duzu**, non errespetua eta askatasuna oinarri izango diren.
- Harreman horretatik **irtetzeko kapaz zara** eta lortuko duzu. **Eskatu laguntza** gertuko pertsoneri, lagunei, irakasleei edo familiakideei. Gogoratu ere, badaudela profesionalak gai hauetan adituak direnak eta zu laguntzeko prest egongo direnak. **Ez zaude bakarrik!**

- Indarkeriaz jokatzeko duen norbait ezagutzen baduzu

- Hitz egin berarekin, **bere jarrera abusiboak identifikatu eta onartu ditzan**.
- Ulertuarazi **ezerk ez duela** kontrola edo bestelako jokaera desegokiak **justifikatzen**.
- Laguntza eska dezan animatu, denbora beharko du eta **horretarako ezinbestekoa da bere harremana uztea min gehiago eragin ez dezan**.

• Indarkeria eragiten baduzu

- Zure jokaerak ez dira egokiak ez onargarriak, **zu zara zure portaeren arduradun bakarra.**
- Eskatu laguntza lagun eta profesionalei.
- Distantzia hartzea da modu bakarra, **utzi harremana min gehiagorik eragin ez diozun.**

Iturria: Colección rebeldes de género. Gobierno de Canarias

LAGUNTZA BEHAR BADUZU

- **SATEVI, 900 840 111 (016):** Indarkeria matxista bikatima diren emakumeei arreta emateko telefono zerbitzua (dohainekoa, anonimoa eta 24 ordukoa).
- **<https://satevi.svisual.org/>:** Entzumen- eta/edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonak, 900 840 111ko profesionalekin komunikatzeko aukera ematen du, zeinu-hizkuntzako interpreteen arreta duen bideo-interpretazioko kanal baten bidez.
- **Zeuk esan; telefono zenbakia: 116 111:** Haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono zerbitzua da. Jazarpen kasu ezberdinen aurrean baina baita indarkeria matxista kasuetan ere.
- **Zure herriko laguntza zerbitzuak:**

-Gizarte zerbitzuak.

-Emakumeen etxea/zerbitzuak.

-Larrialdiak 112




Baliabide osagarriak:

Sexting en positivo gida:






Beldur Barik programa:



Nahiko programa:



Ikus entzunezko baliabide interesgarriak






VOCES TRÁS LOS DATOS

Una mirada
cualitativa a la
violencia de género
en adolescentes

Carmen Ruiz Repullo



Ikus-entzunezko baliabideak



Liburuak

